



ANDOAINGO UDALA



Frankismoaren krimenen aurkako kereila aurkeztu du Andoaingo Udalak epaitegietan

Frankismoak iraun zuen bitartean gauzatutako krimenen aurkako kereila aurkeztu du gaur Andoaingo Udalak Tolosako Epaitegian. Garai haietako testigantzak biltzen aritu da azken hilabeteetan Oroituz memoria taldearen laguntzaz, eta horiek aintzat hartuta, epaitegietan kereila jartzea erabaki du Udalak.

Ekimen honek 2017ko uztailan Udalbatzak aho batez onartutako mozio batean du jatorria. Mozio hartan Frankismoak Andoainen egindako krimenak jasoko lituzkeen txosten bat egitea adostu zen. Oroituz taldeak hartu zuen txosten hori egiteko ardura. 1936-1970 urte bitarteko gertaerak jaso ditu.

Txosten amaitzearekin batera, bi kereila kriminal aurkeztea erabaki zen: bat Argentinan, bertan irekita dagoen prozedura judizialaren baitan, eta bestea Tolosako epaitegian.

Azken honetan, gaur bertan egin da kereilaren erregistroa. Andoaingo Udalarekin batera, bertan izan dira Oroituz taldeko hainbat kide eta frankismoko hainbat biktima ere.

Kereila honekin Frankismoko biktimen erreparazioan urrats bat eman nahi izan du Udalak.

Andoainen, 2019ko ekainaren 12an

